



BERGARAKO UDALA

ELEKTRIKARIEN BRIGADARAKO ARDURADUNA KONTRATATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

=====

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da **elektrikarien brigadarako, aldi baterako eta txandakako** kontratuarekin, **elektrikarien arduraduna** kontratatzea, lehiaketa-oposizioaren bidez.

Lanpostua sailkapeneko **C sailkapen-mailan C1 azpitaldekoa** da, eta 13. mailari dagokion soldata-maila du. Halaber, 3. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Kontratuaren iraupena, estimatua, 2017ko uztailan hasi eta 2020ko abenduaren 20ra artekoa litzateke.

Lan-kontratua lan-jardun osokoa izango da.

Lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera; adibide gisara, Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Erramu Zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, guztiak egutegian aurreikusiko direlarik.

2.- Betekizunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- 1.- Obra eta zerbitzuetako buruarekin zehaztu egin beharreko lanak.
- 2.- Lan abisuak eta elektrikari brigadaren eginbeharrak jaso eta lan ekipo ezberdinei lanak banatu.
- 3.- Elektrikari brigadaren koordinazioa, eginbeharreko lanen kontrola eta bere kideena.
- 4.- Elektrikari brigadako lanak aurrera eramateko, beste brigadako arduradunekin elkarlana eta koordinazioa beharrezkoa denean.
- 5.- Burutzen dituzten lan guztien inbentarioa egin erabakiak hartu ahal izateko.
- 6.- Argindarraren hornitzaile enprekin eta bere teknikariek ere erlazionatu beharrezkoa denean.
- 7.- Material aukeraketak eta erosketak bideratu eta enpresa ezberdinetako saltzaileekin hartu-emanak izan.
- 8.- Argiteri publikoaren eta telekomunikazio instalazioen mantenu lanak, zuzentzaileak nahiz prebentibokoak.



- 9.- Eraikin nahiz lokal munizipalen instalazio elektriko, telekomunikazio nahiz informatika eta ordenagailu instalazioen mantenua.
- 10.- Udalak nahiz promotore pribatuek eginbeharreko instalazio elektrikoak ikuskatu, obran nahiz proiektu mailan.
- 11.- Saileko teknikariek koordinatuz, instalazio elektriko publikoen definizioa, zuinketa eta exekuzioa.
- 12.- Elektrikarien brigadak burutuko dituen instalazioen balorazioa eta aurrekontuak egin.
- 13.- Kontratazio ezberdinen tarifak eta gastuak begiratu eta aldaketak proposatu.
- 14.- Udalak antolatutako edo udalak lagundutako jai edo kultura ekintzetan argindarraren premia dagoenean, konexioa egin eta kentzea antolatzea eta behar denetan ziurtagiria kudeatu.
- 15.-Udaleko energia plana osatzeko ildoak ezarri eta horren jarraipenerako ardurak finkatu eta sistematika inplementatu bere ardurapeko taldean eta jarraipenerako taldearekin koordinazioan..
- 16.- Udal eraikin eta beste instalazioetan, behe tentsioko instalazioen ikuskapena edo "OCA"ren jarraipena egin eta horiek egiteko eta jarraipenerako ardura hartu.
- 17 Udal instalazio eta lokaletako argindarraren instalazioen hobekuntzarako, energia-kontsumoak aurrezteko, etab. proposamena egin.
- 18.- Laneko osasun eta segurtasunaren inguruko araudia ezagutu, laneko arriskuen prebentzioari begira bere arloari dagokionean, eta neurrien ezarpena eta kontrola edo jarraipena egitea.
- 19.- Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik zerbitzu-buruak agintzen dizkionak.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.
Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.
- b) 16 urte beteta izatea.



- c) Goi mailako teknikaria sistema elektrotekniko eta automatizatuetan, edo elektrizitate arloko pareko edo elektrizitate arloko maila altuagoko titulazioa izatea. Eta behe tentsioan kualifikazio indibidualeko ziurtagiria (instaladore karneta) edo hori baimentzen duen titulazioa izatea.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik berezitatekoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) 3. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.
- g) B motako gida-baimena edo baliokide baten jabe izatea.
- h) Kontratuaren hasiera egunean Urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilearen 12. artikuluko 7. atalean jasotako egoeran egotea, hau da, langabezi egoeran egotea edo epe jakinerako kontratua izatea Bergarako Udalarekin.

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.
- b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:
 - Nortasun-agiriaren fotokopia.
 - Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
 - Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluen edota egiaztagirien fotokopia.
 - Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.



c) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, **2017ko maiatzaren 9ra arteko epean**

Eskabideak, era berean, [39/2015 Legeak](#), (*urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen Legearen*) 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

5.- Izangaia onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak [Bergarako Udaleko](#) iragarki-taulan eta Bergarako udalaren web-orrian ere jarriko dira ikusgai. Udalak **5 egun** naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, [39/2015 Legeak](#), (*urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen Legearen*) 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web-orrian ere argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda [Bergarako Udaleko](#) iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Urriaren 30etan onartutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko du parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoren izen-zerrenda udalaren iragarki taulan eta Bergarako udalaren web-orrian argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalan presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto-eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo



goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza-arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzioa eta errefusatzeara. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze-ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiek behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Lehenengo ariketako frogak teorikoa ekainaren 29an izango da, eta ekainaren 23rako Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuko da zein ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarritako ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

—**Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak.**



Ariketa hau bi frogek osatuko dute:

1. Froga teorikoa. **Elektrikarien arduradun** lanpostuaren eginkizunekin edo/eta eranskinean jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoak test modukoa izango den edo ez, eta nola puntuatuko den.

Froga honetan gehienez **10 puntu** lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko froga honetan epaimahaiak erabaki eta izangaiei aurrez jakitera emango dien puntuazioa ateratzea.

2. Froga praktikoa: **Elektrikarien arduradun** lanpostuarekin zerikusia du(t)en froga(k) egin beharko dituzte.

Froga honetan gehienez **20 puntu** lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko derrigorrezkoa izango da epaimahaiak erabaki eta izangaiei aurrez jakitera emango dien puntuazioa ateratzea.

— **Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertua.**

Lanpostuaren profilari egokitzen den jakiteko ariketa(k) egin beharko d(ir)a: test psikoteknikoek, elkarrizketak... eta abarrek osatu ahal izango dute ariketa hau. Epaimahaiak erabakiko du nolakoak diren eta bakoitzaren puntuazioa.

Ariketa honek gehienez ere **15 puntu** izango ditu. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren % 50 ateratzea.

— **Hirugarren ariketa: Euskara proba, derrigorrezkoa eta baztertua.**

Euskarako froga. Izangaiei euskara-maila neurtzeko ahozko eta idatzizko froga egingo da. Derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiek gai edo ezgai sailkatuko dira. Froga hau gainditzen ez dutenek hautaketa-bidetik baztertuta geldituko dira.

Azterketa honek barne eraginak soilik izango ditu eta udaleko Euskara Zerbitzukoek egin eta baloratuko dute.

Ez dute froga hau egin beharrik izango 3. hizkuntza-eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla ziurtatzen dutenek, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

8.- Merezimenduen fasea.



Epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

—Bete behar den lanpostuaren funtzioekin —hau da, elektrizitateko langilezain, arduradun, lanekin— erlazionatuta egindako lana: Gehienez ere **8 puntu arte**, eta hileko gehienez ere 0,15 puntu.

—Elektrizitateko OFIZIAL lanekin edo/eta giza ekipoen antolakuntzan edo/eta instalazioen antolakuntzan arduradun lanekin erlazionatuta egindako lana: Gehienez ere **4 puntu arte**, eta hileko gehienez ere 0,10 puntu.

—Merezimendu horiek egiaztatu beharko dira lan egindako Enpresek eta zerbitzuak bete diren Administrazioek luzatutako ziurtagirien bitartez, eta Gizarte Segurantzak luzatutako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduz. Egiaztagirietan betetako funtzio guztiak zehaztu beharko dira, eta ez badira lanpostuaren eginkizunen artean jasotako gehienak aipatzen, epaimahaiak erabaki ahal izango du nola baloratu. Kotizazio-agirietan ofizial kategoriari dagokion kotizazio-maila izan beharko da, eta gutxienez 6 hilabeteko iraupen jarraitua izan beharko dute bete baloratuak izateko

—Formazio osagarria: Lanpostuaren eginkizun eta ardueri aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da, gehienez ere **12 puntu arte**.

Ikastaroek gutxienez 10 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 10 ordukoari 0,10 puntu emango zaio, eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira. Horren guztiaren eraginetarako baloratuko direnak hauek izango dira:

— Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko formazioa izatea, **2,5 puntu arte**.

— Taldeen laneko dinamikak sortzeari eta motibazioa sortzeari buruzko formazioa izatea, **2,5 puntu arte**.

— Elektrizidadearekin, energia aurrezpenarekin, etab. eko ikastaroak **4 puntu arte**.

— Ingeniaritza Elektrikoa titulua izatea (beti ere deialdian parte hartzeko titulua izan ez denean), **6 punturekin** baloratuko da

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun batean proba bakar bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arazoirengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz iragarki-taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena



Izangai bakoitzak bi fasetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba psikoteknikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Titulazio osagarrien atalean puntu-kopururik handiena ateratzea .
- c) Ariketa praktikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuak: puntu gehienekotik gutxienera.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdian iragarritako lanposturako kontratatzeko proposamenarekin.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxienera baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe aldarrika dezake.

Epaimahaiak ezingo ditu, inolaz ere, deialdiko lanpostua baino izangai gehiago proposatu, lan-poltsarako izangaien kasuan izan ezik.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren proposamena argitara ematen jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, eta lanean hasteko kontratua sinatu beharko du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkeztu ez baditu, edo kontratua sinatuko ez balu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa- oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

11.- Kontratazioa-Praktikaldia

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari txandakako kontratua **2020ko abenduaren 20ra** artekoa egingo dio, legeak aurreikusitako frogaldia izango duelarik, hau da, bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da; udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.



Behin behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Kontratua egin aurretik medikuaren ikuskapena pasatu izanaren eta lanpostu honi dagozkion eginkizunei aurre egiteko gai dela adierazten duen ziurtagiria eta zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

Halere, eta frogaldia bukatu aurretik Bergarako Udaleko mediku zerbitzuak *bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko* behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio, eta ukatuko balitz edo ez dela gai emango balu kontratua bertan behera utziko du udalak.

12. Lan-poltsa

Lanpostua eskuratu ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin, elektrikarien kontratazio premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da, elektrikaria kontratatzekeo premien aurrean bertara joko duelarik udalak.

Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du, onartzen denetik kontaktzen hasita, eta urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, betiere Barne Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendua Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretu baten bidez onartuta dagoen Lan-poltsen Erabilerarako Barne Araudiak jasotzen duena izango da (eranskin gisa dago jasota).

13.- Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnak eta lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

14.- Prozesuaren argitalpenak.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.net).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte-hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

15. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jardura ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.



Bergarako
Udala

16. Inpugnazioa.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen [39/2015 Legeak](#), (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen Legearen) ezarritako epe eta moduan.



I. ERANSKINA

1. Eraikuntzako arau teknologikoa: NTE IEE Kanpoko argiteria.
2. Apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua, Lanleketan segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak: IV. ERANSKINA. Lanleketako argiztapena.
3. Azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretua, Kanpoko Argi Instalazioen Energia Eraginkortasunari buruzko Erregelamendua eta horren jarraibide tekniko osagarriak (EA-01etik EA-07ra) onartzen dituenak.
4. Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena: bai artikulatua, bai ondorengo jarraibide teknikoak:
 - ALDERDI OROKORRAK: ITC-BT01 eta ITC-BT02.
 - DOKUMENTAZIOA ETA IKUSKAPENAK: ITC-BT03, ITC-BT04 eta ITC-BT05.
 - BANAKETA-SAREAK: ITC-BT06, ITC-BT07, ITC-BT08 eta ITC-BT11.
 - KANPOKO ARGITERIA: ITC-BT09.
 - LOTURA-INSTALAZIOAK: ITC-BT12, ITC-BT13, ITC-BT14, ITC-BT15, ITC-BT16 eta ITC-BT17.
 - BARNEKOAK EDO HARTZAILEAK: ITC-BT18, ITC-BT19, ITC-BT20 eta ITC-BT21.
 - BABESGARRIAK: ITC-BT22, ITC-BT23 eta ITC-BT24.
 - LOKAL BEREZIAK: ITC-BT28 eta ITC-BT-51.
 - HELBURU BEREZIETARAKO INSTALAZIOAK: ITC-BT33, ITC-BT34 eta ITC-BT40.
 - ERANSKINAK: II. Tentsio-jaitsierak, III. Zirkuitu laburreko korrontek, IV. Instalazioen Egiiztapena, eta VI. Sinbologia.
5. Arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenak. 614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa.



BERGARAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES QUE REGIRÁN LA CONVOCATORIA PARA LA CONTRATACIÓN DE UN/A ENCARGADO/A PARA LA BRIGADA DE ELECTRICISTAS

=====

1.- Objeto de la convocatoria

Constituye el objeto de la presente convocatoria la contratación **temporal** con contrato de relevo, mediante concurso-oposición, de un/a **encargado de electricistas para la brigada de electricistas**.

El puesto de trabajo está incluido en el **grupo de clasificación C, subgrupo C1**, con un nivel retributivo 13. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 3, con carácter preceptivo.

La duración estimada del contrato sería desde julio de 2017 hasta el 20 de diciembre de 2020.

El contrato laboral será a jornada completa.

El calendario y horario laboral serán los fijados por el ayuntamiento cada año, adecuándose siempre a las características del puesto y a las necesidades del servicio. Por ejemplo, deberá trabajar para cubrir las necesidades de personal del programa de fiestas de Bergara, fiestas de San Martín, fiestas de San Marcial, Sábado de Ramos y similares, con previsión de todas ellas en sus calendarios.

2.- Funciones

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

- 1.- Determinar junto con el jefe de Obras y Servicios los trabajos a realizar.
- 2.- Recibir los avisos de trabajo y tareas a realizar por la brigada de electricistas y distribuirlos entre los distintos equipos de trabajo.
- 3.- Coordinación de la brigada de electricistas, control de las tareas a realizar y de los miembros de dicha brigada.
- 4.- Colaboración y coordinación con el resto de responsables de brigada cuando sea preciso para trabajos de la brigada de electricistas.
- 5.- Realizar un inventario de todas las tareas que se ejecutan, a fin de poder adoptar decisiones.
- 6.- Contactar cuando sea preciso con las empresas de suministro eléctrico y con sus técnicos/as.
- 7.- Realizar los trámites necesarios para la elección y compra de materiales y mantener contacto con los/las comerciales de las distintas empresas.



- 8.- Trabajos de mantenimiento de las instalaciones de alumbrado público y telecomunicaciones, tanto de reparación como de prevención.
- 9.- En los edificios y locales municipales, mantenimiento de las instalaciones eléctricas, de telecomunicación e informática, así como las de los ordenadores.
- 10.- Inspección de las instalaciones eléctricas a realizar por el ayuntamiento o por promotoras privadas, tanto en obra como a nivel de proyecto.
- 11.- En coordinación con el/la técnico/a del departamento, definición, replanteo y ejecución de las instalaciones eléctricas públicas.
- 12.- Valorar y presupuestar de las instalaciones a realizar por la brigada de electricistas.
- 13.- Revisión de las tarifas y gastos de las distintas contrataciones, y propuesta para su modificación.
- 14.- En los actos festivos o culturales organizados o participados por el ayuntamiento, si se precisa electricidad, organizar y realizar la conexión y desconexión, así como gestionar el certificado cuando sea preciso.
- 15.- Establecer las líneas para la elaboración del Plan de Energía Municipal, establecer las responsabilidades para su seguimiento, e implementar una sistemática en el equipo a su cargo y en coordinación con el grupo de seguimiento.
- 16.- Inspección y seguimiento de la OCA en las instalaciones de baja tensión en edificios municipales y otras instalaciones, responsabilizándose de su ejecución y seguimiento.
- 17.- Realizar propuestas para la mejora de las instalaciones eléctricas de locales e instalaciones municipales, para ahorro de consumo energético, etc.
18. Conocer la normativa sobre salud y seguridad laboral, respecto a la prevención de riesgos laborales en el ámbito que le corresponde, establecer medidas y realizar su control o seguimiento.
- 19.- Cuanto le encomiende la jefatura de servicio, en relación con su puesto de trabajo y categoría.

3.- Requisitos de las personas aspirantes

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el proceso:

- a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

También podrán participar el cónyuge de las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separada de derecho, así como sus descendientes y los/las de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos/as descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.



